

SARRERA

0.1. LEGE XEDAPENAK

0.1.1. Aurrekinak

Aralarko Parke Naturalaren izendapena martxoaren 27ko 4/89 Legeak, Naturguneen eta Basa Flora eta Faunaren Artapenari buruzkoak, ezarritakoaren babesean egin zen. Hala, babes araudi bat eman zitzaion Aralar aldeari.

Eusko Jaurlaritzak, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren proposamenez, Aralarko Natur Baliapideen Antolamendu Plana onartua du apirilaren 26ko 168/1994 Dekretuaren bitartez (ikus 1994ko uztailaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren proposamenez, Aralarko Parke Naturala izendatua du lehengoaren data berekoa den 169/1994 Dekretuaren bitartez. Halaxe, Aralarko Parke Naturaleko natur baliapideak planifikatzeko eta kudeatzeko bitartekoa eratu da, 4/1988 Legean, Naturguneen eta Basa Flora eta Faunaren Artapenari buruzkoan, eta 16/1994 Legean, Euskal Herriko Izadiaren Artapenari buruzkoan, jasotako ondorioetarako.

Hauekin batera, uztailaren 8ko 6/1994 Foru Araua, Gipuzkoako Mendiena, kontutan hartu da.

0.1.2. Barruti banaketa

Antolamendu Planean parke naturala zati ezberdinetan banatzen da, eta banaketa horretan ondorengo barruti motak bereizten dira:

Erreserba barrutiak: ekologiaren ikuspegitik balio handia duten edo bereziak diren eremuak, flora, fauna, paisaia edo arkeologi ezaugarri apartekoak dituztenak.

Babes barrutiak: zorua higitzeko edo galtzeko arrisku handia duten lurralde zabalak dira. Beren helburua zorua eta uraren zikloa babestea eta hobetzea da, zorua galtzeko prozesuak eragozteko eta zuhaitzen azalera haunditzeko iharduerak bultzatuz.

Mendi babesgarrien barrutiak, ekoizpen muga nabariak ezartzen zaizkien eta zuhaitzi sailak egotea komeni den eremuak dira, arrisku eragile ezberdinak daudenez gero zorua eta ur baliapideak babestearren. Bertako nahiz

mendibarrereko estaldura edafikoa eta ur baliapideak babestea dute helburu.

Abeltzaintza barrutiak: lehenetasunez abeltzaintzarako erabiltzen diren eremuak dira, ekoizteko ahalmenez, larreen kalitatez eta usadioz horretarako aproposak direlako. Barrutiotan abeltzaintzaren alorrean enplegua haunditzea, ekoizpen baldintzak hobetzea eta abeltzaintza ingurune naturalak behar duen babesarekin bateragarri egitea dute helburu.

Basogintza barrutiak: lehenetasunez basogintzarako erabiltzen diren eremuak dira, ekoizteko ahalmenez eta usadioz horretarako aproposak direlako. Barrutiotan basogintzaren alorrean enplegua haunditzea, ekoizpen baldintzak hobetzea eta abeltzaintza ingurune naturalak behar duen babesarekin bateragarri egitea dute helburu.

Landa zabaleko barrutiak: Dagokien udalerriko Arau Subsidiarioen menpe egoki, baserri eta auzune inguruko lurraldeak dira. Beren helburua are horietako erabileren dibertsitatea iraunaraztea da, horrek paisaia eta faunan dakarren aniztasunarekin.

Barruti hiritarrak eta azpiegiturak: udalerrietako hiri antolaketa arauetan eremu hiritar gisa edo auzogune gisa jasota dauden eremuak eta azpiegitura mota hauek:

- Igarotzea libre den errepedeak eta pistak.
- Urtegiak, ubideak eta uharkak.
- Zubiak.
- Ur hodiak eta depositeoak.
- Ur hartuneak.
- Goi-tentsioko hariak.
- Telefono hariak.
- Telekomunikazio errepikagailuak.

Eta, horiekin batera, beren zortasunak.

Eremu horietan, udalerrri bakoitzean onarturik dauden hiri antolaketa arauak eta aipatutako azpiegitura horiei aplikatu dakizkiekeen legeak beteko dira.

Barruti mota bakoitzak bere helburuak, jarraipideak eta arauak ditu, Natur Baliapideen Antolamendurako Planaren 24. artikulutik 30.era

bitartean jasoak. Barruti bakoitzaren mugaketa eraskineko mapan adierazia dago.

0.2. INGURUNE FISIKOA

0.2.1. Eremu geografikoa

Aralarko Parke Naturala Gipuzkoako lurralde historikoaren hego-ekialdeko muga dago. Altzania-Lizarrustiko mendilerroaren ipar isuraldeak, Ataungo domoak eta Enirio-Aralarko gunek eta berorren inguruko mazelek osatzen dute. Parkearen hegoaldean dagoen mendi ardatz nagusia Kantauriko eta Mediterraneoko uren arteko banalerroa da.

Luze-zabaleraz 10.956,5 ha ditu eta perimetroz 72,643 km. Bi punturen arteko gehienezko distantzia 19,1 km-koa da, hain zuzen ere ipar-ekialdeko muturraren (Zarateko lepoa) eta hego-mendebaldekoaren (Balankalekuko tontorra) artean dagoena.

Altitudez punturik garaiena Ganbo du (1.412 m), eta apalena Zaldibia (185 m), baina lurraldearen zatirik haundiena (%67) 300-900 m bitartean dago.

Aralarko Parke Naturalak zazpi udalerritako lurraldea eta horietako seiren artean, beste bederatzirekin batera, eratzen duten Enirio-Aralar izeneko Mankomunitatekoa hartzen ditu. Honela banaturik daude azalerak:

Udalerria	Azalera parkean (ha)	Portzent.
Abaltzisketa	601,72	5,49
Amezketeta	1.001,68	9,14
Ataun	4.479,33	40,88
Lazkao	221,90	2,03
Tolosa	293,85	2,68
Zaldibia	972,57	8,88
Enirio-Aralarko mankomunitatea	3.384,93	30,90
Parkea guztira	10.955,98	100,00

0.2.2. Klima

Aralarko Parke Naturala uren banalerroa egiten duten mendietan dago eta bi klima ezberdinen arteko muga da, Gipuzkoan (Oria bailaran) egiten duen Kantauri ekialdeko klima ozeanikoaren eta Nafarroan (Sakanan) egiten duen Mediterraneoko klima kontinentalizatuaren arteko muga, hain zuzen. Aralarko mendiok pantaila klimatiko baten antzekoak dira eta euria eta hezetasuna eragiten dituzte.

Bai neguan eta bai udan, tenperaturak leun samarrak izaten dira, itsasoaren eraginak arindu egiten ditu eta. Urteko batezbesteko tenperatura 11° C ingurukoa da, maximoen batezbestekoa 17° C izanik eta minimoena, berriz, 7° C.

Euriari dagokionez, urtean batezbeste 1.800 mm egiten ditu, eta gehiena azarotik urtarrilera bitartean egin ohi du. Euria urte osoan egiten duen arren, uda sasoiaren egun gutxitan egiten du.

0.2.3. Gea

Parkearen eremua Pirineoak mendebaldean amaitzen diren inguruan dago kokatua,

Kantaurialdeko euskal arroaren barruan eta Bizkaiko sinklinorioaren hego-ekialdeko ertzetik gertu.

Zorua osatzen duten material nagusiak, buztinak, margak, hareharriak eta kareharriak dira. Laugarren Aroko estaldurak izan ezik, material guztiak jurasikokoak eta behe-kretazikokoak dira.

Jatorriz koralezko arrezifeak diren kareharri bioklastikoen multzoek ematen diote Aralarri itxura malkartsua, gogorra, itzela. Kareharri pilaketaren emaitza morfologikoa ikusgarria da, eta tontor nagusiak (Txindoki, Ganbo) eta Ataungo domoa bera honela osatuak ditu. Kareharrizko mazizo horietan, bestalde, disoluzio karstikoaren ezaugarri ugari ditugu agerian: dolinak, haitzuloak eta beste.

Hareharri multzo haundiak, inguru horretako gean ugaria den eremu detritiko zabal batean daude: supraurgoniarrean. Ipar eta hegoaldeko muturretan daude eta irtengune nabari batzuk osatzen dituzte (Altzaniako mendilerroa).

Laugarren Aroko estaldurak lodiera txikiak sedimentuak dira, batez ere mazelatan behera eroritako materialak, ibaiek karriatutakoak eta zoikaztegiak, lohiak eta buztinak. Aipagarria da,

berezia baita, Arritzaga erreka erretzen duen eremuan dagoen morrena izaerako azaleramendua.

0.2.4. Landaretza eta flora

Aralarko Parke Naturalak hartzen duen eremu osoa Euskal Herriko isuralde atlantikoan dago, Kantauri itsasorako eta Mediterraneoarako uren banalerroaren ondo-ondoan. Horregatik, barrenaldea (500-600 metroko kotatik behera) Bailara Atlantikoen eskualde naturalekoa da eta goialdea, berriz, Iparraldeko Mendien eskualdekoa.

Parkearen lurraldean dagoen landaretza gehiena eurosiberiarra eta zirkumboreala da. Oinarritzko landaretza horretaz gainera, ordea, mendien behealdean dauden karelurrezko mazela eguteretan landare mediterraneoarrak eta submediterraneoarrak ageri dira; eta goialdean, berriz, badira elementu boreo-alpetar eta kantauri-pirinearrak ere, landaretzaren aniztasuna aberasten dutelarik.

0.2.4.1. Landaretza potentziala

Bailara Atlantikoen aldean *Quercus robur* sailleko **hariztiak** izango lirateke aproposenak. Lur aberats eta sakonenetan baso **eutrofikoak** izango lirateke, eta lur pobreetan, berriz, **harizti azidofiloak** egongo lirateke, espezie gutxiagorekin. Karelurrezko mazela eguterak ez dira hariztietarako egokiak eta, beraz, haien ordez **artadi kantauriarra** garatu liteke, eta artadiaren eta pagadiaren tartean **harizti-erkamezti karezalea**. Erreka bazterretan eta hezetan iraunkorreko lekuetan **haltzadi kantauriarra** izango litzateke nagusia.

Behin 500-60 metroko kotaren gainetik, Iparraldeko Mendien eskualdean, **pagadi karezaleak**, harkaitz karbonatuen inguruetan, eta **pagadi silizezaleak**, lur silizeoetan edo zoru garbituetan, izango lirateke paisaiaren osagarri nagusiak.

Landaretza azonaleko leku batzuetan, harkaitzegen oinetan edo malda haundietan eta, zaila izango litzateke baso klimazikoa osatzea eta, beraz, **baso nahasia** izango genuke.

Harkaitzegi, lenartegi eta legartegietan, apenas lurrik egoten ez denez, zaila da zuhaitzirik osatzea. Horregatik, horrelako espazio natural irekietan, hain bizigiro gogorretan ateratzen eta irauten espezializatutako landare motak instalatuko dira, batez ere belarkiak eta zuhaiskak.

0.2.4.2. Gaurregungo landaretza

Gizakien iharduera berezkoa litzatekeen landaretza eredu hori aldatuz joan da urteetan zehar. Lehen hariztiak zeuden lur askotan belardiak, soroak, baratzak, zuhaitz landaketak eta abar daude orain. Berezko pagadi askoren ordez ere belardi-larreak eta zuhaitz aldatuak aurkitzen ditugu dagoeneko. Artadiak eta erkameztiak egurra ateratzeko ustiatu dira, baso hazkuntzaren hurrenkeran berez ez zegozkien etapak eraginez, edo, batzuetan, haien lekuan zuhaitz berriak aldatu dira. Aldakuntza horiek denek bere eragina utzi dute Aralarko Parke Naturalak landaretzaren ikuspegitik egun duen paisaian.

Landaretza mota bakoitzak hartzen duen azalera honako koadro honetan labur daiteke:

Landaretza mota	Azalera (ha)	Parke guztiaren %
Hiritartua/landaregabea	40,8	0,4
Berezko basoak	3.949,9	36,1
Aldatutako zuhaitziak	1.909,4	17,4
Sastrakadiak	1.151,3	10,5
Belardi eta soroak	804,9	7,3
Mendiko larreak	2.684,7	24,5
Bestelako belarki formazioak	255,5	2,3
Harkaitzegiak eta legartegiak	160,2	1,5
Parke Naturala guztira	10.956,5	100,0

Azpimarratzekoa da mendiko belardiek eta larreak hartzen duten azalera zabala, lurralde honetan artzaintzak eta, oro har, abeltzaintzak duten tradizio haundiaren erakusle.

Hurrengo koadroan, berriz, berezko baso mota bakoitzak parkearen barruan duen azalera ikus daiteke:

Baso mota	Azalera (ha)	Parke guztiaren %
Pagadi karezalea	854,4	7,8
Pagadi silizezalea	2.029,3	18,5
Artadi kantauriarra	229,7	2,1
Erkametz-harizti karezalea	115,1	1,1
Hariztia-baso nahasia	683,4	6,2
Haltzadia	38,0	0,3
Berezko basoak guztira	3.949,9	36,1

Aberastasun biologikoari eta bakantasunari begira, landaredi unitaterik aipagarrienak honako hauek dira: artadi kantauriarrak, erkametz-harizti karezaleak, arantzadiak, mendiko belardiak, harkaiztegi eta lapiazetako landaretza, laiotzetako belar unada subalpetarrak eta oso urriak diren harizti ondo helduak.

Giza ihardueraren ondorioz arriskurik haundiena duten landarediak haltzadiak eta harizti-baso nahasiak dira.

0.2.4.3. Flora

Lehenago esan den bezalaxe, floraren oinarria korologia zirkunborealeko eta eurosiberiarreko elementuek osatzen dute. Oinarrizko hauek aberasten dituzten beste elementu anitz ere badira, ordea, Parke Naturalean, besteak beste landare mediterraneoarrak, borealpetarrak eta kantauri-pirinearrak, espezie kanpotar batzuek at. Elementu endemikorik, berriz, behintzat adiera estuan ulertuta, ez dago Aralarren, izan ere eremu jakina eta urria hartzen duten landare batzuk badiren arren, beti agertzen dira horiek berak inguruko mendietako lurraldeetan ere.

Aralarren dauden espezie interesgarrien multzoa honako azpisail hauetan bana daiteke:

- 7 espezie, gaurregun Euskal Autonomi Elkartearen barruan bakar-bakarrik Aralarren ezagutzen direnak.
- 26 espezie, Euskal Autonomi Elkarteko beste toki batzuetan agertzen direnak baina Gipuzkoako lurralde historikoan bakar-bakarrik Aralarren daudenak.
- 32 espezie, Aralartik kanpo Gipuzkoan beste toki batean bakarrik agertzen direnak.
- 7 espezie, urtarrilaren 16ko 4/1990 Foru Dekretuak babestuen artekoak, Aralarren badirenak.

Balio haundiko espezieak zaindu nahi badira ezinbestekoa da horien bizigiroa eta bizigunea zaintzea. Horregatik, hona hemen landare bitxienak edo interesgarrienak bizi ohi diren inguruneen zerrenda:

- Harkaiztegiak, lenartegiak eta megaforbiaguneak.
- Mendigainetako larreak.
- Artadi kantauriarrak eta erkametz-harizti karezaleak.
- Baso hostoerorkorrak.

- Mendialdeko hezeguneak.
- Mendigainetako sarobeak eta abereentzako gordelekuak.

0.2.5. Fauna

Aralarko Parke Naturalean 147 ornodun espezie bizi dira. Kopuru horretan ez dira sartzen migrazio garaian edo negutean bakarrik egoten diren kiropteroak eta hegaziak.

Funtsean animalia multzo eurosiberiarra osatzen dute. Baina oinarrizko fauna hori anizten duten bestelako elementuak ere badira: mendiko espezie batzuk -mendien goiko aldean bizi direnak-, harkaiztegietan bizi diren beste batzuk eta espezie mediterraneoar batzuk -toki egutera eta egoki jakin batzuetan bizi direnak-.

Faunaren sistematikari dagokionez, honako klase hauetan banatzen dira espezieok:

Klaseak	Arrainak	Anfibioak	Narastiak	Hegaziak	Ugaztunak
Espezie kp.	6	8	10	90	33
Portzentaia	4,08	5,44	6,80	61,22	22,44

Legearen aldetik duten artapen egoerari dagokionez, Aralarren dauden espezie gehienak babesturik daude. Estatuko legerian 4 espezie arrantzatu eta 14 ehizatu daitezke; 81 espezie, berriz, *Espezie Mehatxatuen Katalogo Nazionalen* sarturik daude.

Europako Batasunaren mailan, 15 espezie *Hegaztien Arzetarauak* babesturik daude, eta 15 espezie *Habitat Arzetarauak* babesturik. Fauna basatia babesten eta zaintzen duten nazioarteko hitzarmen batzuek ere badute aplikazioa parkearen eremuan. Hala, Aralarren dauden 119 espezie *Bernako Hitzarmenean* babesturik daude, 32 hegazi espezie *Bonn-eko Hitzarmenean* eta 16 espezie *Washington-eko Hitzarmenean* (*CITES Erregelamendua*).

Parke Naturalaren barruan 6 komunitate eta 32 area hartu dira interes faunistiko haundikotzat.

0.2.6. Paisaia

Aralarko berezko paisaia oso aldatua dago, gizakiak antzina-antzinatik arrunt erabili eta okupatu baitu lurralde hori. Hala eta guztiz, oso paisaia aberatsa du eta Euskal Herrikoetan kalitate haundikotzat jo daiteke.

Parkeko paisaiaren osagai nagusia bere erdigunean dagoen kareharrizko mendi multzo

haundia da. Erdigune horren mendebaldean Ataungo domoaren itxitura periklinala dago, eta hegoaldean, berriz, Lizarrusti-Burundako mendilerroa, ardatza E-M norabidean duena. Mendizerra horiek haran perpendikularrez zeharkaturik daude eta oso paisaia nabarmena osatzen dute, dituzten mazela malkartsuengatik eta gailur garaiengatik.

Aralarko goiordeka karstikoko eta gailurretako paisaia nahiko homogeneoa da. Goiko alde horretan, funtsean larreak eta harkaiztegiak daude, tarteka pagadiak eta sastrakadiak ageri direla. Horrek kalitate estetiko haundia ematen dio alde horretako paisaiari, landaredi hori lurraren topografiari oso ondo egokitzen baitzaio.

Kareharrizko gune horren inguruko mazelatan batez ere pagadiak daude, eta tarteka sastrakak eta baso landatuak. Alde askotatik begiraturik, oso paisaia aberatsa osatzen da inguru horretan.

Haranetan, berriz, batik bat soroak eta segabelardiak daude, tarteka hostozabalen basoak ere badirelarik. Lurralde horietan paisaiaren artifizialtasuna haundiagoa da eta forma geometriko ugari ikus daitezke, jabegoak oso banaturik daudenez gero.

Aralarren paisaia kalitaterik eta ikuspen hauskortasunik haundiena duten alderdiak bertako berezitasun geomorfologikoak (Txindoki, Balerdi, Ganbo, Alotza, Arritzagako sakana, Ataungo domoaren gandorrek) eta Agauntza-Lizarrustiko pagadi haundiak dira, ikuspegi zabaleko mazela malkartsuetan daudenak. Paisaia kalitatetik eta ikuspen hauskortasunik txikiena duten alderdiak, aldiz, ikuspegi motzeko haranak -eskuarki baso landatuak dituztenak- eta domo barruko eremuak dira.

0.2.7. Ur baliapideak

Aralarrek dituen ezaugarriengatik, erreka askoren sorlekua da eta, beraz, bertan jaiotzen diren uren ezaugarri fisikoak eta kimikoak garrantzi haundikoak dira inguruko arroentzat. Ur korrante horietako batzuk, inguruko biztanleei hartune txikien bitartez hornidura emateaz gainera, Lareoko urtegiaren eta aurrikusita dagoen Amondaraingo urtegiaren arrora drenatzen dute, Beasain-Ordizia inguruko biztanleen hornidura sarera, alegia. Hortaz, bada, ezaugarri horiek direla eta, arreta berezia eskaini behar zaio Aralarko uraren gaiari.

Urari dagokionez, eta lurgaineko eta lurpeko urak kontuan hartuta, Aralarko lurraldean lau arro nagusi bereiz daitezke: Agauntza, Zaldibia, Ibiur eta

Amezketakoa. Eremu karstikoak parkearen zati haundi bat hartzen du (azalera osoaren ia %16ak zuzenean isurzulo karstikoetatik barrena drenatzen du), eta batez ere harkaiztegi karetsuak, ordekak eta sakanak egiten ditu. Aralarko ur gehienak lurpetik doaz, eta azaletik, berriz, mazela periferikoetan sortutako erreka eta iturbegi batzuetan bakarrik doaz.

Maila iragazkaitzak (buztinak, margak) pantaila modukoak dira eta kareharri multzo haundiak zona karstiko ezberdinetan banatu eta gorabehera tektoniko haundien norabidean bakarrik komunikatzen uzten dituzte. Kareharriak karstifikazioaren ondorioz oso iragazkorrek dira eta urak abiadura oso aldagarria du eta toki batzuetan egunean ehundaka metro egitera iritsi daiteke.

Oro har, Aralarko errekek txikiak dira, bai luzeran bai emarian. Garrantzi haundia dute bai izadiaren aldetik, balio haundiko ekosistemen euskarri baitira, bai eta ekonomiaren aldetik ere, ur hornidurarako hartune ugari baitituzte. Aralarren errekek udan eta udazkenaren parte batean agorraldia izaten dute eta ur emaria urritzen zaie, baina ez da oso agorraldi nabarmena izaten. Euria eta azaleko uren zirkulazioa oso uztarturik egoten dira eta, hala, iturri, sorburu eta erreka ugari sortu ohi da euri gogorren ostean.

Industri eta hiri hondakinetakoa arazo nabarmenik ez dago Aralarren, eta kutsadura fokoa nagusiak, alde batetik abeltzaintzako azpiegitura batzuetan (tratamendu eskortetan, bainutokietan) izaten diren ganadu pilaketak eta, bestetik, giza hondakin solidoak eta likidoak dira. Horiekin batera, badira Aralarren urarekin zerikusia duten beste arazo batzuk ere, esate baterako berezko ur korronteak arriskuan jartzen dituzten ur ustiaketak erregulatu beharra eta Aralarko mazela batzuetan nabari den higaduraren aurka lan egin beharra. Datozen urteotan lehenatasunez kontrolatu eta ezabatu behar dira arian-arian puntu beltz horiek.

0.3. INGURUNE SOZIALA

0.3.1. Jabegoaren banaketa

Aralarko Parke Naturelean jabetza publiko eta partikular mota ezberdineko lurak daude, izan ere badira udalenak diren herri onurako mendiak, udal entitateenak diren mendi libreak eta baita lur partikularrak ere (banakakoak edo multzokatua). Jabegoen luze-zabalera oso aldakorra da: badira hektarea bat inguru duten jabegoak, baina Enirio-Aralar herri onurako mendiak, berriz, 3.404 ha ditu.

Ondorengo taulan, herri jabetzakoak diren azalera adierazten dira, landalurren katastroen arabera:

	Azalera publikoa (ha)
Abaltzisketa	368,3
Amezketeta	573,0
Ataun	1.577,3
Zaldibia	375,0
Enirio-Aralar	3.403,9
GUZTIRA	6.297,5

Beraz, herri lurak Parkearen azalera osoaren %57,5 dira. Jabe partikularrak, berriz, 543 dira eta denen artean lurraldearen %42,5 dute, 4.659 ha alegia, 1.827 lurzatiean banatuta. Hiru jabe partikular daude 100 ha baino azalera haundiagoa dutenak, eta horietako batek 1.510 ha ditu.

Jabegoaren banaketa ikusita, argi dago garrantzitsua dela Parkean lurak dituzten jabeen elkarten lankidetzeta eta adostasuna izatea jabetza pribatuko lurretarako aurrirakosten diren iharduketak gauzatzeko.

0.3.2. Biztanleria

Parke inguruak eta Aia aldea kenduta, ez dago biztanlegunerik Aralarren. Bakarrik baserri batzuk, mendien behealdean sakabanatuak, eta urtesaso jakin batzuetan erabiltzen diren artzainen bordak daude gainerakoan. Dena dela, parkea oso eskualde gizartartuan kokatua dago, Goierri eta Tolosaldean ehun mila biztanle bizi baitira.

Parke barruan lurak dituzten sei udalerrietan denetara 28.070 biztanle dira. Hala eta guztiz ere, Tolosa eta Lazkao hiri eta industri izaerako herriak dira eta, beraz, Aralarko lurren erabilerak ez die gainerako herriei adina eragiten, gainerakoak landatarragoak dira eta.

Hertsiki hitzeginez, beraz, parkearekin zuzeneko harremana duten biztanleak 5.112 izango lirakeke, hain zuzen ere Abaltzisketa, Amezketeta, Ataun eta Zaldibiakoak eta Tolosakoa den Bedaio auzategikoak:

Abaltzisketa	290	Bedaio	229
Amezketeta	1.075	Zaldibia	1.696
Ataun	1.822	Guztira	5.112

0.4. BALIAPIDEAK

0.4.1. Basogintza

Aralarko paisaiaren ezaugarri nagusia harkaitzegiei eta mendiko belardi eta larreen

presentzia den arren, pagadiak edo baso landatuak ere alde horretako identitate zeinu nagusietakoak dira. Aralarko bisitariei paisaia ikustean irudipen kontrajarria sortu ohi zaie: Gipuzkoako zatian belardi-larreak eta Nafarroakoan, berriz, pagadi zabalak bistaratuko zaizkio. Hori, ordea, ez da errealitatearen ispilua: gaurregun, parkeak hartzen duen azalera osoaren ia %52 basoak estalia dago, eta baso naturalen azalera landatutako basoena halako bi da.

Basogintza, hau da basoek eskaintzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak ustiatzeko lanak, tradizio haundikoa da Aralarren. Alde batetik badituelako herri eta auzategiak gertu samar, eta bestetik aspaldidanik bertara ganadu asko bildu ohi delako, basoak antzinatek ustiatu izan dira Aralarren, eta iharduera horrek aldaketak eragin dizkio paisaiari. Aralarko historian zehar piskanaka basogabetze prozesu bat gertatu da eta, bestalde, basogintza errentagarriagoa egiteko teknika eta espezie berriak sartu dira. Bilakaera horretan zehar liskarrak ere izan dira basogintzaren eta abeltzaintza eta aisialdiko iharduera edo erabileren artean.

Jabego publikoa eta herri onurako mendiak nagusi dira Aralarren, parke osoaren %58 baita. Hori berme bat da mendiaren ustiaketa orokorrari eta basoak zaintzeari begira (lege babesa, basozaintza, antolamendu planak eta abar errazago ahalbidetzen baititu), eta, gainera, diru iturria da lurren jabe diren udalentzat.

Oro har, Aralarren basogune ezberdinak bereiz daitezke, parkeko lurraldearen alde batzuetatik besteetara dauden diferentziak kontuan hartuta, hau da, landaretza mota nagusiak, lurren emankortasuna, ibiltzeko zailtasuna (aldapa maila, basobideen dentsitatea) eta abar gogoan hartuta. Ordeka eta gailurralde karstikoek muga nabariak dituzte basogintzarako, eta leku horietan dauden zuhaitzi eta zuhaiskadi urriak garrantzi haundikoak dira lurzorua babesle eta uraren erregulatzaile gisa. Parkeko lurrik ekoizgarrienak, berriz, mendibarrenak eta haranak dira, eta horietan dauden basoak ekoizleak eta babesleak dira aldi berean, bertako jendearentzako dirusarrerak sortzeaz gainera lurzoruen euskarriak baitira, lubiziak eta uholdeak eragotzi eta ingurugiro baldintzak hobetzen dituztelarik.

Aralarren bi basoalde nagusi nabarmentzen dira, luze-zabalera haundikoak, etenik gabeak eta ekoizpen baldintza egokikoak direlako: Ataungo domoaren barrualdea, Aitzarte, batez ere hazkuntza ertaineko zuhaitziak dituenak, eta Aralarko hegoaldean, Balankalekutik Errenagaraino hedatzen

den pagadi zabala, Euskal Autonomi Elkartearen mendi garaian osaturik dauden pagadirik onenetakoa dena. Aitzitik, arboladi babeslerik eza nabari da malda haundiko larretoki batzuetan; horietan, berez izaten den higadura arazoa ganaduaren eraginez areagotu eta larriagotu egiten da.

0.4.2. Abeltzaintza

Aralar aldeko baserri gehienek oinarri ekonomikoa abeltzaintza da, industriatik eratorritako sarreretatik at. Abereetan, esne behiak dira garrantzi haundiena dutenak, eta ondoren ardiak. Oro har, haragitarako behiak, zaldi-aziendak, txerri-aziendak, hegaztiak, untxiak, ahuntzak eta erleak ez dira horren garrantzitsuak ekonomian, nahiz eta badiren iharduera nagusitzat horrelako azienda motaren baten hazkuntza duten baserriak edo ustialekuak.

Aralarko Parke Naturaleko abeltzaintza motarik ezaugarriena larrez larreko artzaintza da, eta artalde ugariak latxa arrazakoak dira. Artzaintza mota hau neolitiko garaiaz gero gaurregun arte etenik gabe izan da inguru honetan, eta denbora honetan guztian ez da ia aldaketarik izan artzainen bizimoduan. Iharduera horren emaitza dira Aralarri ospea ematen dioten artisau gaztak.

Udaldian, maiatzetik aurrera, artaldeak mendigainetara igotzen dituzte artzainek eta hantxe edukitzen dituzte larrean udazkena arte. Urri bukaera aldean edo, artzaiek neguterako tokietara jaisten dituzte artaldeak. Batzuk inguruko herrietako belardietara eta beste batzuk urrutirago: Oiartzun, Errearteria, Lasarte, Orio, Zarautz, Billabona, Asteasu, Errezil edo Alkiza, denak Gipuzkoan.

Udan artzainak mendiko bordetan bizi ohi dira eta bertan lan egiten dute. Borda gehienetara ez da autoz iristeko biderik egoten eta, beraz, artzainak oinez edo zaldiz ibili ohi dira. Azken urteotan ahalegin handia egin da, batez ere Enirio-Aralarko Mankomunitatean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, artzain bordetan bizitzeko baldintzak hobetearren.

Mendiko larreetan, artaldeez gainera zaldi eta behi aziendak ere egoten dira maiatz hasiera aldetik urte amaiera inguru arte.

Mendiko larre gehienak Enirio-Aralarko Mankomunitatearen lurretan daude, baina Ataunen, Zaldibian, Abaltzisketan eta Amezketan ere badira herri larreak.

Enirio-Aralarko larreetan azken bost urteotan izan diren abereen kopuruak honako bilakaera hau izan dute:

Ardi aziendak:

URIEA	BURUAK	TITULARRAK	BURUAK/TIT.
1991	14.582	66	220,93
1992	14.476	66	219,33
1993	13.008	65	200,12
1994	13.075	70	186,79
1995	13.982	73	191,53

Zaldi aziendak:

URIEA	BURUAK	TITULARRAK	BURUAK/TIT.
1991	418	106	3,94
1992	454	121	3,75
1993	512	127	4,03
1994	522	128	4,08
1995	544	124	4,39

Behi aziendak:

URIEA	BURUAK	TITULARRAK	BURUAK/TIT.
1991	172	25	6,88
1992	130	20	6,50
1993	121	23	5,30
1994	206	32	6,44
1995	280	44	6,36

Beste alde batetik, 1995ean herri larreen eremu bakoitzean eta Aralarko Parke Natural osoan izan diren abereen kopuruak honako hauek dira:

EREMUA	Ardiak	Zaldiak	Behiak	ALU
Abaltzisketa	850	57(*)	57	216
Amezketa	210	8	4	37
Ataun	1.156	5	75	219
Enirio-Aralar	13.982	544	280	2.502
Zaldibia	450	10	10	74
GUZTIRA	16.648	624	426	3.048

(*) Abere hauek udazkenean eta neguan bakarrik larreratzen dituzte.

Oharra: ALU = Azienda Larri Unitatea

Behi edo zaldi azienda bat = 1 ALU

Ardi azienda bat = 0,12 ALU

Udalek emandako datu hauek landan bertan egindako behaketekin erkatutik, badirudi Abaltzisketa eta Ataungo abereen kopuruak gainetik daudela eta Amezketa, aldiz, behetik.

Aipatu beharrekoa da, bestalde, Lazkaoko Udalak eta Tolosakoak (Bedaioko lurretan) ez dutela herri larrerik Aralarko Parke Naturalaren lurraldearen barruan.

0.4.3. Ehiza eta Arrantza

0.4.3.1. Ehiza

Natur Baliapideen Antolamendurako Planak, 12. artikuluko C.2 puntuan, ezartzen du parkearen barruan sartutako lurrek ehiza-araubide bereziaren kalifikazioa izango dutela. Aralar parke natural izendatu aurretik lur gehienak *Ehiza Ustiaketa Arruntekoak* ziren, baina *Ehiza Babesleku* bat ere bazegoen bertan. Ehiza Babeslekuak parkearen eremurik garaiena hartzen zuen, 3.900 ha inguru, eta ehizean egitea erabat debekatua zuen.

Hiru ehiza mota egiten dira Aralarren, harrapatzen diren espezieen arabera: *ehiza xehe migratzailea*, *ehiza xehe geldikorra* eta *ehiza larria*.

Espezie migratzaileen ehiza xehea, funtsean, oilagor, uso eta birigarroena da. Oilagorra altzarazita ehizatzen da, basoan barrena bila ibiliz, eta uso eta birigarroak, berriz, zelatan jarrita, parkearen inguruan baimendurik dauden parada edo postuetan.

Espezie geldikorren ehiza xehea garrantzi txikikoa da, izan ere bertan hazten diren espezie ehizagarriak, funtsean untxia, erbia eta eper gorria, oso urriak edo hutsalak dira lur libreetan; dena dela, ehiza-babeslekuan erbi populazio haundi samarra dago, eta eper gorri bakan batzuk ere badira.

Ehiza larria, berriz, basurdetan egiten da, batiden bitartez. Inguru honetan arrunt gehitu da basurdearen ehiza azken urteotan, espeziea ugaritu denez geroztik. Orkatza ere ohikoa bihurtzen ari da parkean, bai espeziea bera ingurua berriz bere kasa kolonizatzen ari delako bai eta Enirio-Aralarko Mankomunitatean berriz sartzeko programa gauzatzen ari delako. Dena dela, oraindik populazio txikia du, ehizatu ahal izateko adinakoa ez.

Bestalde, herrietako ehiztari elkartek ehiza birpopulatu edo askatu izan dute, batez ere espezie xeheak (untxiak, eper gorriak eta grisak, Virginiako kolinak, eta galeperrak), baina noizbait baita basurdeak ere. Ondoen zabaldu direnak eper gorriak dira. Hala, espezie honek Ehiza Babeslekuan finkatzea lortu du, etorkizuna oraindik zalantzan duen arren.

Azkenik, Ehiza Babeslekuaren mugaren aldamenean, hegomendebaldean, ehiza xehe txapelketetarako erabiltzen den barruti bat dagoela aipatu behar da. Norgehiagoka hauetarako bertako espezieak eta ehiza helburu honekin askatzen diren beste batzuk erabiltzen dira.

0.4.3.2. Arrantza

Arrantzari dagokionez, Parke Naturaleko uretan honako espezie hauek ditugu: amuarrain arrunta, aingira, loina eta barboa. Gaurregun *Arrantza Barruti* bat dago Lareoko urtegian, eta aldian behin erreka batzuetan debekaturik edo mugaturik egoten da zenbait zatitan arrantzan aritzea.

0.4.4. Erabilera publikoa

Aralar gipuzkoar eta, oro har, euskal mendizaleen erreferentzi gune garrantzitsua izan da beti. Batetik Txindoki, Ganbo, Putterri, Auza Gaztelu, Irumugarrieta eta gainerako gailurrak, Nafarroako pagadiak edo San Migel santutegia oso erakargarriak direlako eta, bestetik, Aralar bai Gipuzkoako bai Nafarroako herrigune haundietatik gertu samar dagoelako, mendi inguru gutxi dira Euskal Herrian hau baino mendizale gehiago biltzen dituztenak.

Arin-arin laburbilduta, Aralarko *erabilera publikoari* dagokionez ondorengo hau da Erabilera eta Kudeaketa Plan Eraentzaile honek duen abiapuntua edo egoera:

Aralarren Gipuzkoako aldera joateko bide nagusiak bi dira: GI-120 errepidea, Lazkaoitik Lizarrustiko mendatera Ataungo Agauntza errekarren bailaran barrena doana, eta GI-2133 errepidea, Alegiatik Ordiziara Aralarko behealdetik, Zaldibia, Abaltzisketa eta Amezketa barrena, doana. Bi errepide nagusi horietatik beste errepide gehigarri batzuk ere abiatzen dira: GI-3715 errepidea, Bedaioraino doana; GI-3781 errepidea, Zaldibiatik Antsuriatara doana; GI-120 errepidetik Aia auzategira doan errepidea; eta Amezketatik, San Martin baselizan barrena, Arritzagako bailararaino doana. Autoz ibil daitekeen eta gaurregun baimendurik dauden pistak, berriz, honako hauek ditugu: Urkillagatik Lareoko urtegiara joatekoa, Ataungo San Martin auzategitik Intxusti eta Eniriorantz doan pista, Antsuriatetik Arkakarainoko bidea, Zaldibiatik Arkakatxikiko depositora doan bidea eta Amezketatik Amarlekutara doana.

Sarbide horien sarea ikusita, eta aztergai dugun eremuari dagokionez, bi alde nagusi bereiz daitezke erabilera publikoari dagokionez. Alde bat Ataun ingurukoa izango litzateke, eta gune nagusiak Lizarrustiko *Parketxea* eta Ataungo auzategietan edo landa zabalean dauden edo sortuko liratekeen ekipamenduak izango litzateke. Beste aldea, sarbide nagusia Ordizia-Alegia errepidetik izango lukeena, Zaldibia, Abaltzisketa, Amezketa eta Bedaio inguruetakoa izango litzateke. Alde honetako

Parkeko Ate nagusiak Abaltzisketa/Larraitz (une honetan eremu honetarako Plan Berezi bat idazketa fasean dago) eta Amezketeta/San Martin izango lirateke.

Aztertutako eremuan, edo berorren mugaturuetan, sei atsedeen eremu daude (ikus eraskineko taula), ekipamendu maila ezberdinekoak. Atzaunen dauden Intxusti, Astigarraga eta Aldazbarrenakoen kasuan atsedeen eremu txikiak dira. Ez, ordea, Larraitz/Zamaokoa, izan ere esan daiteke

Abaltzisketan dagoen eremu hau Aralar gipuzkoarretarako sarrera nagusia dela eta, hortaz, atsedeen eta aisialdiko iharduera edo erabilerearako lekurik garrantzitsuena bihur litekeela. Atsedeen eremu garrantzitsuak dira, era berean, San Martingoa (Amezketeta) eta Olako Zelaia deritzana (Zaldibia). Denak udal titularitateko lurretan daude. Horietatik hiru (Aldazbarrena, Intxusti eta Olako Zelaia), gainera, herri onurako mendietan daude. Kudeaketari dagokionez, Aldazbarrena, Intxusti eta Astigarraga Foru Aldundiaren ardurapean daude, eta besteak udalen ardurapean.

	Eraikina	Iturria	Erretea	Mahaiak	Jokoak	Zakarrontziak	Aparkalekua	Ibilgailuen bidea
Astigarraga		1	1	4				BAI
Aldazbarrena	Aterpea	1	1	2		1		Zail samarra
Intxusti		1		3				Zail samarra
San Martin	Komuna	1	2	17	BAI	3	BAI	BAI
Olako Zelaia		1		12		2	BAI	BAI
Larraitz/Zamao	Aterpea, komuna	2		19		20	BAI	BAI

Aldazbarrena eta Intxusti oso barrualdean geratzen direnez eta ibilgailuz iristen zailak direnez, iharduera zabaletarako mugatu samarrak geratzen dira. Bestalde, aipatu beharrekoa da Zaldibiako udalerrian, aztertutako eremuaren barruan edo mugamugan badirela han-hemen beste zenbait ekipamendu txiki.

Bidezidor eta bideei dagokienez, berriz, eremu honetan eta inguruan lau GR (ibilbide haundiak) eta zazpi PR (ibilbide txikiak) daude, Mendi Federazioak diseinatuak:

- GR 12. "Euskal Herriko Bidezidorra"
- GR 20. "Aralarko Bira"
- GR 20.1. "Urkillagako mendatea-Lareo-Lizarrustiko mendatea"
- GR 121. "Gipuzkoako Bira"
- PR-G2. "Ordizia-Lazkaomendi"
- PR-G3. "Lazkao-Lazkaomendi"
- PR-G4. "San Martin-San Martin"
- PR-G5. "San Gregorio-Urkillagako mendatea"
- PR-G6. "Kaxeta-Lareo-Lizarrustiko mendatea"
- PR-G7. "San Gregorio-Etxegarate"
- PR-G9. "Bernoako galtzara"

Era berean bertako udalek badituzte zenbait proiektu, ibilbide didaktikoak prestatzeko,

agroturismoko baserrietatik eta herrien ingurutik eta mendibarrenetatik zehar.

Aztertutako eremutik gertu eta inguruko herrietako biztanleei, hau da batik bat Lazkao, Ordizia eta Beasaingo herritarrei zuzendurik, badira aisialdirako beste bi puntu: Lazkaomendi eta eratu berria den Oianguko izadi parkea.

Aralarko bideetan eta pistetan mendiko bizikletan jende ugari ibiltzen da, eta zaldi gainean ere bai batzuk. Iharduera horiek direla-eta gaurregun liskarrik ez dagoenez, ez dirudi beharrezkoa denik horietarako arau berezirik ezartzea.

Agroturismoko zenbait baserri daude Aralarren (gaurregun zazpi eta, aurki beste bat zabaltzekoak dira), eta parkearen inguruetan dauden udalerrietan era badira hotelak eta ostatuak (une honetan bi). Eskaintza honen osagarri, Tolosaldean agroturismoko hogeita hiru etxe daude zabalik eta beste bat irekitzekotan dira, Goierrin zortzi eta beste hiru zabaltzekotan. Nafarroan ere, Aralartik gertu dauden herrietan agroturismoko hamabosten bat etxe, *kanping* bat eta hogeitazostatu edo hoteletik gora.

	Agroturismoko etxeak
Ataun	1
Lazkao	1
Zaldibia	2
Abaltzisketa	1
Amezketeta	1
Bedaio	1
Goierrri/Tolosaldea, gainerako herrietan	24

Mendiko aterpeak ere badaude Aralarko parkean. Publikoak eta pribatuak kontuan hartuta, ia hamarren batean edo aterbea har lezake bisitariak. Hona hemen zein diren:

- Lizarrusti. *Parketxe* berrian eraikitzen ari diren aterpea
- Bixente aterpea. Taberna, jatetxea eta aterpea. Negozio gisa funtzionatzen du.
- Errenagako aterpe publikoa, Igaratzen.
- Aldazbarrenako atsedeen eremuko aterpea
- Abaltzisketako udal aterpea
- Ataunen egitekotan diren aterpea.

Gainera, pertsona edo talde partikularrek zaindutako beste aterpe batzuk ere badira, eskuarki bisitarien zatitza txikiak egoten direnak. Horietako batzuetaz, ordea, -Udaiuko aterpeaz, esate baterako- zailtasun handirik gabe balia daitezke bisitariak. Bestalde, Nafarroa aldean ere badaude mendiko aterpeak eta antzekoak.

Parkearen eremuan egiten diren astialdiko iharduerei dagokienez, senderismoaz eta egonaldiaz gainera, bi dira azpimarra daitezkeenak: espeleologia eta eskalada.

Aralarren haitzulo eta leize ugari dago, gehienak (adibidez Ormazarretako leizeak, haundienak sakonean 576 m eta luzean 7 km galeriak) Nafarroako partean dauden arren. Aralarko mendi multzoaren ezaugarri geologikoen eraginez, lurpean ur-korronte eta erreka ugari dago inguru osoan. Horien adibide ikusgarrienetako bat Desao eta Aia-Iturrieta bitartean osatzen den ur-korrontea da, izan ere Aralarko hegomendebalde ia osoan barrena doa eta leize eta isurzulo askotako ura hartzen du.

Eskaladak, berriz, ez du aparteko garrantzirik aztertutako eremuan, baina egin egiten da zenbait mendi-paretetan, batez ere Zazpituerritan, Txindokin eta Jentilbaratzan, eta baita Intzartzu, Sagastarri, Larraone eta Auza Gaztelun ere. Kirol iharduera honen eraginez nabari den arazo nagusia Ataungo domoan dauden haitzetan dugu, han diren eskalada bide jakin batzuk baitira bertan bizi diren hegazti

harrapariak kabia egiteko eragozpena izaten baitira. Sagastarri ere zona sentibera da alde horretatik.

Bestelako kirol eta aisi iharduera bakanago batzuk ere egiten dira aldean behin Aralarren. Hala, Agauntza errekaaren goialdean kainoi jaitsiera egiten da, Lizarrusti eta Ergoiena tartean. Parapentean eta delta-hegalean ere ibiltzen dira batzuk tarteka.

Natur eta kultur heziketari itsatsitako bestelako ekipamendu batzuk ere badaude parkearen muga inguruetan, esate baterako Abaltzisketako aterpea, Ataunen egitekoak diren Joxe Miel Barandiaranen Museo/Etxea edo Oianguko Izadi Parkea. Horiek ere kontuan hartu eta Parke Naturalaren eskaintzarekin uztartu beharrekoak izango lirateke.

Azkenik aipatu behar da Aralarren, Euskal Herriko mendialde gehienetan bezalaxe, gizakien presentzia oso antzinakoa dela eta usadio zaharreko erabilerak eta iharduerak finkatu direla bertako lurraldean, batez ere inguruko auzo-bailaretan bizi direnek landu dituzten nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza tradizionalaren ildotik garatuak. Beraz, lurraldearen garapen eramangarria ahalbidetzeko garaian garrantzi handikoa izan da horrelako iharduerei jarraipena ematea eta iharduera berriekin osatzea, hain zuzen ere ingurugiro naturalarekiko kezkarri eta aire libreko aisi eta kultur iharduerekiko eskariari erantzutearren.

Badira gaurregun ildo horretatik doazen zenbait proiektu, herri mailan edo eremu zabalagoetan lantzen ari direnak. Hortaz, EKPE honek horiek denak koordinatzea ahalbidetu beharko luke. Honako hauek dira, besteak beste: *Goierrriko Plan Estrategikoa*, eskualdearen landa garapenerako agentzia den GOIEKI izenekoaren ekimenez idatzia; *Ataungo Plan Estrategikoa*, une hauetan Udala bera prestatzen ari dena; eta *Tolosaldeko Plan Estrategikoa*, TOLOMENDI mendiko nekazaritza elkarteak bultzatua. Bestalde, badira landa inguruneari laguntzeko zenbait programa Eskualdeko Iharduketako Planen barruan, nekazaritza ekonomia ingurugiroarekiko errespetoarekin uztartzeko iharduketak bultzatzen dituztenak. Beraz, Aralarko Parke Naturalaren *eragingune sozioekonomikoa* dauden herrietan programa horiek ahalik eta gehien errentabilizatzea bultzatu beharko da EKPE honen bitartez.

0.4.5. Industriak, meategiak eta harrobiak

Aralarko Parke Naturalaren barruan dagoen industria aipagarri bakarra Amezetako paperfabrika

da, herrigunean bertan dagoena. Aipatzekoa da, baita ere, Zaldibiako zentral hidroelektrikoa, Osinberde eta Osinbeltzeko sorburu karstikoetatik abiatutako egindako bi kanaletako ur jauzia ustiatzen duena.

Ateratze-iharduera zaharren aztarnak geratzen dira Arritzagako meategietan eta Ataungo San Martin

auzoko harrobian. Maila txikiagoan eta parkeko lurraldean barrena sakabanaturik badira harrobi izandako beste leku batzuk ere, esate baterako Lareoko urtegia egiteko egindako harrobia bera.